



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko urriaren 5a

81. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte eragileekin batera lan osasunari buruzko plan bat taxutu eta onetsi dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Ingurumen Ministerioa premiatzen da Alhama ibaian Cigudosa-Valdeprado urtegia eraikitzeko lanak berriro hasteko beharrezkoak diren tramiteak arindu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen egin ditzan behar diren kudeaketak Baluarteko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jar dadin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko liburu zuria presta dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoa deiturikoan Auzitegi Gorenaren epaia dela-eta lehenbailehen egin ditzan elebidun identifikazio nahiz seinaleztapen elementuak, argitalpenak, iragarkiak, oharrak, bideko seinaleak eta administrazioaren agiri, jakinarazpen eta komunikazioak. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, udalaren dirulaguntzarik gabe bizilagunen eraikinetan igogailua paratzeko obretako zergak arintzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Lekarozko kaputxinoen ikastetxe izandakoa erosteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua Espainiako Gobernuko Industria Ministerioarekin bildu ote den FMei buruzko plan tekniko nazionalaz eta irrati frekuentzia berrien banaketaz jarduteko. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Europako Batzordeari European estualdiak kudeatzeko sistemak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat proposatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, herritarrei administrazioak jadanik badituen datuak eta agiriak ez eskatzeko administrazio-prozedurak berrikusteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia emateko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko urriaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontu beharrak finantzatzeko 3.000.000 euroko kreditu berezia ematekoa

Ekonomia eta Ogasun Departamentuan 2007ra arte atzeratu ezin den behar bat sortu da, hots, Sonagar enpresaren Hornidura Teknikoen

Funtsera diru-ekarpena egiteko eskaerari erantzutea.

Behar hori asetzeko, kreditu berezi bat ematen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan xedaturikoarekin bat.

1. artikulua. 3.000.000 euroko kreditu berezi bat ematen da, gastuen kontusail honi aplikaturik:

– 121002-13300-7709-923100 zenbakiduna, “SONAGAR sozietatearentzako ekarpenak” izeneko.

2. artikulua. Aurreko artikuluan aipatzen den kreditu berezia finantzatuko da “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailean izan diren dirusarrera handiagoen kontura.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar munean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte eragileekin batera lan osasunari buruzko plan bat taxutu eta onetsi dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batetik heldu dena: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte eragileekin batera lan osasunari buruzko plan bat taxutu eta onetsi dezan". Aipatu mozioa 2006ko ekainaren 30eko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte eragileekin batera lan osasunari buruzko plan bat taxutu eta onetsi dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-eragileekin lan osasunari buruzko plan berria negoziatu dezan eta 2006ko abenduaren 31 baino lehen Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan. Lan osasunari buruzko plan horren helburuak eta jarduerak ondoko arloetan aurreikusi dira:

- Lan istripuak.
- Arrisku berriak.
- Osasunaren zainketa.
- Eritasun profesionalak.

Planak, halaber, "Lan osasunaren eta lan baldintzen behatokia" sortzea aurreikusiko du.

Erabakia. Horren bidez, Ingurumen Ministerioa premiatzen da Alhama ibaian Cigudosa-Valdeprado urtegia eraikitze lanak berriro hasteko beharrezkoak diren tramiteak arindu ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Ingurumen Ministerioa premiatzen da Alhama ibaian Cigudosa-Valdeprado urtegia eraikitze lanak berriro hasteko beharrezkoak diren tramiteak arindu ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Ingurumen Ministerioa premiatzen da Alhama ibaian Cigudosa-Valdeprado urtegia eraikitzeke lanak berriro hasteko beharrezkoak diren tramiteak arindu ditzan

Nafarroako Parlamentuak Ingurumen Ministerioa premiatzen du Alhama ibaian Cigudosa-Val-

deprado urtegia eraikitzeke lanak berriro hasteko beharrezkoak diren tramiteak arindu ditzan.

2007ko eta hurrengo urteetako Estatuko aurrekontu orokorrak prestatzean eta onestean aipatu obra horren garapena kontuan izan dezan.

Gai horren inguruan hartutako erabakien berri eman diezaion Nafarroako Parlamentuari, jakinarren gainean egon dadin.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen egin ditzan behar diren kudeaketak Baluarteko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jar dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko irailaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen egin ditzan behar diren kudeaketak Baluarteko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jar dadin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen egin ditzan behar diren kudeaketak Baluarteko sarrera nagusiko errotulazioa euskaraz ere jar dadin

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen egin ditzan behar diren kudeaketeak Baluarteko sarrera nagusian orain gaztelaniaz bakarrik dagoenaren modu eta tamaina bereko euskarazko errotulazioa ere jartzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko liburu zuria presta dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta berrikuntzari buruzko liburu zuria presta dezan".

Legebiltzarrak 2006ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko ekainaren 23ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoa deiturikoan Auzitegi Gorenaren epaia dela-eta lehenbailehen egin ditzan elebidun identifikazio nahiz seinaleztapen elementuak, argitalpenak, iragarkiak, oharrak, bideko seinaleak eta administrazioaren agiri, jakinarazpen eta komunikazioak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoa deiturikoan Auzitegi Gorenaren epaia dela-eta lehenbailehen egin ditzan elebidun identifikazio nahiz seinaleztapen elementuak, argitalpenak, iragarkiak, oharrak, bideko seinaleak eta administrazioaren agiri, jakinarazpen eta komunikazioak".

Legebiltzarrak 2006ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko irailaren 8ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko urriaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, udalaren dirulaguntzarik gabe bizilagunen eraikinetan igogailua paratzeko obretako zergak arintzeko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak udalaren dirulaguntzarik gabe bizilagunen eraikinetan igogailua paratzeko obretako zergak arintzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak galdera egin du udalaren dirulaguntzarik gabe bizilagunen eraikinetan igogailua paratzeko obretako zergak arintzeko aukerari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Egindako galderan jakin nahi da Nafarroako Gobernuaren ustez ondoko egoera hau alda daitekeen:

“Bizilagunen eraikin batean igogailua jartzeko obrak egiten direnean, aukera dago obra horien kostua errenta aitortpenetan kenkari moduan aurkezteko. Horretarako, beharrezkoa da instalazioak udalak –kasu honetan Iruñeko Udalak– arauturiko dirulaguntza izatea. Udalaren dirulaguntzarik ez badago, ordea, ezin da aipatu zerga-arinketa eskatu.”

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 62. artikuluan aurreikusten dira kuota osoari aplikatuko zaizkion kenkariak.

1. idatz-zatian, xedapen hauek nabarmenduko ditugu:

“1. Ohiko etxebizitzarengatiko kenkaria.

a). Subjektu pasiboaren ohiko egoitza den edo izanen den etxebizitza, Espainiako lurraldeetan, erosi edo zaharberritzeagatik zerga-aldian ordaindutako diru kopuruaren % 15. Kenkari horren oinarri gehienzkoa urteko 9.015 eurokoa izanen da.

(...)

Ondorio horietarako, zaharberritzea ondokoa betetzen duena da:

a´). Bizileku eta hiri ondarearen zaharberritzearen babespenari dagokionez legez eska daitezkeen baldintzak bete beharko ditu, baldin eta organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez bermatzen bada hori.

b´). Etxebizitzaren egitura, aurreko aldea, estaldura edo antzekoak sendotuz eta tratatuz berreraikitze xedea duen obra, baldin eta lanen kostu osoak ehuneko hogeita bostean gainditzen badu erosketaren prezioa, betiere erosketa hori lanak hasi aurreko bi urtetan burutu bada, edo, bestela, lanen kostu osoak etxebizitzak zaharberritu baino lehen zeukan egiazko balioa gainditzen badu.

(...)

f). Halaber, zilegi izango dute ohiko etxebizitzaren kenkaria aplikatzea etxebizitza horretan egokitze obrak edo instalazioak egin dituzten subjektu pasiboek, bai eta lan horiek eraikinaren parte komunetan egiten badira edo finka hori eta kalea lotzeko beharrezko pasabideetan, baldintza hauen pean:

a´) Administrazio eskudunak zertifikatu beharko du egokitze obrak edo instalazioak beharrezkoak direla etxearen irispidea eta zentzumen komunikazioa minusbaliatuek egoki eta duin erabili ahal izateraino moldatzeko; hori erregelamendu bidez arautuko da.

b') Dedukzioa egiteko eskubidea emanen dute subjektu pasiboaren beraren edo berarekin bizi diren ezkontide, bikotekide egonkor, arbaso edo ondorengoaren minusbaliotasunaren ondorioz subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egin beharreko obrek eta egokitze-instalazioek.

c') Etxebizitzan, aurreko b') letran aipatzen direnetako edozein pertsonak jabe, maizter, maizter-orde, edo usufruktudun gisa bizi beharko du.

Bestalde, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Legearen 52. artikuluan honako ezarrita dago:

6. Zergari buruzko Foru Legeko 62.4. artikuluko f) letran aipatzen den kenkaria egiteko, hauxe aditzen da

(...)

Frogatu beharko da Zerga Administrazioaren aurrean obra eta instalazio horiek beharrezkoak direla zentzumenezko sarbide eta komunikazio hobetu eta hortaz minusbaliatua duin eta egoki moldatu ahal izateko. Hartarako Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren ziurtagiri edo ebazpena aurkeztu beharko da, bere Balorazio eta Orientazio Ekipoek egindako irizpena oinarri harturik.

3. Aipatutakoetatik ez da ondorioztatzen udalak emandako dirulaguntza baldintza bat dela Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoan, igogailua egiteko obren kosteagatik, kenkaria egiteko.

Aipatutako Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauditik ondorioztatzen denez, ken-

karia aplikatzeko baldintzak, obren ikuspuntu kontzeptualetik, hiru hauek izan daitezke:

– Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako zaharberritzeari buruzko espedientean ezarritako baldintzak betetzea. Izan ere, arauak eskatzen du zaharberritzeari buruzko espedientearen bidezko akreditazioa, dirulaguntza izan ala ez.

– Obrek etxebizitzaren egitura, aurreko aldea edo estaldura sendotuz eta tratatuz berreraikitze xedea izatea.

– Obrek ezgaitasuna duten pertsonen mugikortasuna errazteko xedea izatea. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak egiaztatu beharko du obren beharra. Kasu horretan, kenkaria ezgaitasuna duten subjektu pasiboari edo ezgaitasuna duen senide batekin bizi diren subjektu pasiboari baino ez dagokie. Kenkaria ez dagokie beste auzokideei.

4. Beraz, ondorio horietarako, ez zaigu egoki iruditzen ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik egiten den kenkaria aldatzea. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiak ez du aragiten galderan azaldutako egoera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua 1. idatz-zatia betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Lekarozko kaputxinoen ikastetxe izandakoa erosteko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Lekarozko kaputxinoen ikastetxe izandakoa erosteko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 30eko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Lekarozko kaputxinoen ikastetxea erosteko arrazoiei buruz egindako galdera dela-eta, esan beharra dago erosketa –oraindik ez da gauzatu– ondarea

kudeatzeko jarduketa gisa planteatu dela, Nafarroako Foru Komunitateak dituen ondasun higiezinak mantentzeko eta zabaltzeko.

Era berean, erosi behar diren lurretako zati batengatik Elizondon aurreikusitako bide azpiegitura bat igaroko da; lur horien gaur egungo hirigintza sailkapena, ekipamendu publiko zein pribatuak, bateragarria da eskola erabilerarekin –inguruan Lekarozko BHI dago– eta kultura, aisia eta turismoarekin lotutako erabilerekin. Banakako proiektuak hasi ahalko dira erosketa gauzatutakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua 1. idatz-zatia betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanés

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua Espainiako Gobernuo Industria Ministerioarekin bildu ote den FMei buruzko plan tekniko nazionalaz eta irrati frekuentzia berrien banaketaz jarduteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak jakiteko Nafarroako Gobernua Espainiako Gobernuo Industria Ministerioarekin bildu ote den FMei buruzko plan tekniko nazionalaz eta irrati frekuentzia berrien banaketaz jarduteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko uztailaren 6ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernua Espaini-

ako Gobernuo Industria Ministerioarekin bildu ote den FMaren buruzko plan tekniko nazionalaz eta irrati frekuentzia berrien banaketaz jarduteko. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

1) Bildu ote da Nafarroako Gobernua Industria Ministerioarekin?

Bai. Nafarroako Gobernuak parte hartzen du Industria Ministerioarekin aldizka egin ohi diren bileretan.

2) Ba al daki Nafarroako Gobernuak Nafarroako lizentziarik badagoen?

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emandako 2005eko otsailaren 25eko 48. Foru Aginduaren bidez, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari Nafarroako frekuentzia modulatuak uhin metrikozko irratientzako frekuentzia berriak eskatu zitzaizkion.

Plan tekniko nazionalaren zirriborroan aurreikusita omen dago lizentziak ematea, kopurua zehaztu gabe badago ere.

3) Hala bada, nola egingen da lizentziak esleitzeko prozesua?

Lizentziak esleitzeko prozesua egingen da kontratazioaren eta irratiaeren arloan indarrean dagoen

araudian ezarritakoari jarraikiz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluaen 1. idatz-zatian xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Europako Batzordeari Europan estualdiak kudeatzeko sistemak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat proposatu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Europako Batzordeari Europan estualdiak kudeatzeko sistemak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat proposatu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 16ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Europako Batzordeari Europan estualdiak kudeatzeko sistemak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat proposatu izanari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

1) Nortzuk proposatzen ari dira?

Estandarizatzeko proiektua bultzatu duten unitateak Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusia eta Barne Zuzendaritza Nagusia dira,

Europako Aferen eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusiak eta Tracasa sozietate publikoak lagunduta.

2) Zein urrats egiten ari dira horretarako?

Bilerak izan dira Europako batzordeko Erregioen Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin eta Informazioaren Gizarterako eta Hedabideen Zuzendaritza Nagusiarekin.

3) Zein bide erabili dira?

Urrats guztiak Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkartzaren bidez egin dira.

4) Zein izan da proposamen horren emaitza?

Hala Informazioaren Gizarterako eta Hedabideen Zuzendaritza Nagusiak nola Erregioen Politikarako Zuzendaritza nagusiak proiektuari buruzko interesa agertu dute. Orain, proiektua arreta handiagoz aztertzen ari dira erabaki egokiak hartzeko asmoz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluaen 1. idatz-zatian xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, herritarrei administrazioak jadanik badituen datuak eta agiriak ez eskatzeko administrazio-prozedurak berrikusteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak herritarrei administrazioak jadanik badituen datuak eta agiriak ez eskatzeko administrazio-prozedurak berrikusteari buruz egin dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 30eko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parla-

mentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du herritarrei administrazioak jadanik badituen datuak eta agiriak ez eskatzeko administrazio-prozedurak berrikusteari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Baloratzen ari da, esaterako, datu pertsonalak babesteko arauditik eratorritako mugek gai horretan duten eragina, herritarren eskubideak eta bermeak bateragarri egiteko asmoz, behar den bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	